

## BEZEROAK

Gure proiektua adineko pertsonentzat, zehazki, Gipuzkoako zaharretxetako helduentzat zuzenduta dago. Zaharretxe hauetan, denek ez dituzte behar edo arazo berak, guk bi taldeetan sailkatuko genituzke.

Alde batetik, beraien kabuz gauzak gogoratzeko gai ez direnak, horientzako *Remember* diseinatu dugu. Izenak dioen modura, gauzak gogoratzeko pentsatua dago; aiton-amonen eginbeharrak gogoratzeko. Hori da funtzio nagusia. Alzheimerraren gaixotasunaren hasieran dauden pertsona helduentzat oso erabilgarria izan daiteke. Alzheimerra gaixotasun tristea da eta adinekoen artean geroz eta ohikoagoa da detektatzea. Hasieran, otorduak zein orduan dituzten ahaztuko dira, ondoren, beraien eginbeharrak gainean egin, eta horrela, oroimena guztiz galdu arte. Arazo hauei irtenbide bat aurkitzeko, gure txip berezia eskainiko diegu zaharretxetako helduei; horrela, demagun, bazkaltzeko ordua denean, txipa audifono batera lotuta egongo da eta honek *“Bazkaltzeko ordua hemendik 10 minutuetara izango da”* adieraziko die. Horrelako mezuak emango dizkie, beste adibide batzuk; *“Gaur igandea da, eta postre berezia izango dugu”* edo *“Gaur eguberri eguna da”*, etab.

Bestalde, pertsona helduak bakoitzean gero eta bakarrago sentitzen dira, seme-alabak urruti bizi direlako edo oso lanpetuta daudelako beraien eguneroko bizitzarekin. Hauek bakarrik sentitzen diren uneetan, txipa gorputzean txertatuta dutenez, zorientasunaren hormona jeisten denean, gure lantaldeko norbait triste dagoenarekin kontaktuan jarriko da eta konbertsazioa emango dio bera animatzeko asmoarekin. Zaharretxeko laguntzaileak ez diren beste pertsona batzuekin denbora pasa nahi badute ere, aukera izango dut; gure boluntarioak arduratuko dira beraien gustoko gai bati buruz edo beraien sentimendu edo pentsamenduez hitz egiten.